

# SANMARTZIALAK

## IRUN 2022

BIDASOA.HITZA.EUS

OARSOALDEA.HITZA.EUS

Argazkia: Imanol Saiz Gomez de Segura

**G**arbi dute irundarrek San Pedro eta San Martzial jairik izan ez diren azken bi urteak ikasteko izan direla. Batetik, elkar zaintzen ikastekoak, eta bestetik, festarik gabe hiriaren izaeraren zati bat lausotu dela ikastekoa. Bada, jada hemen dira hiriko jaiak. Hilaren 23an hasiko dira ofizialki San Joan bezperako suarekin.

Egitarau ofizialari jarraipena egiten bazaio, 2019ko sanmartzialetatik aldaketa gutxi daude. Ofizial horretatik kanpoko jarduerak antolatu dituzte aldi berean hiriko eragileek. Baina aldaketarik izan ez den ekitaldi nabarmenena hilaren 30eko egun handikoa da: alardea. Aurten ere bi alarde aterako dira hiriko karriketara, batek jaietan ere berdintasunetik ulertzen duena izatea, eta bestea baztertzaillea. Alegia, jairik izan ez den azken bi urteetan ez da aurrera urratsik egin oinarrizkoa dirudien gatazka konpontzeko.

Hala ere, alardetik harago bada non goza. Uztailaren 1era arteko epea dute irundarrek galdutako bi sanmartzialak berreskuratuzeko. X



# Borroka gogoratzea, eta ez ospatzea

**Alarde Parekideak 26 urte beteko ditu, bataila izan zenaren 500. mendeurrena gogoratzen ari diren urte berean. Alardezaleak elkarteko Xabier Kerexeta urteurrenak ospatzeari buruz aritu da.**

ALAINE ARANBURU ETXEGOIEN

**G**izarte garaikidearen ezaugarrietako bat da data biribilak ospatzea edo gogoan izatea. Baita urtebetetzeak ospatzea ere. Joan den mendean eta aurrekoetan jaiotakoek ez zioten hainbesteko garrantzirik ematen urteurrenei, alegia, nahikoa zuten zein urtetan jaio ziren jakitea historiaren zein momentutan bizi ziren konprenitzeko. Xabier Kerexeta Erro, Alardezaleak elkarteko kide izateaz gain, historialaria, etnografoa eta ahozko tradizioiko mitoetan espezializatua da, eta denboraren kontzeptua beste gizarzteetan «ziklikoa» zela adierazi du.

Aurten 500 urte beteko dira San Martzial Eguneko alardea interpretatzeko arrazoia den bataila gertatu zela. Irungo txoko askotan irakur daiteke zenbaki biribil eta handi hori, esate baterako, udal jai egitarauaren azalaren parte handi bat hartzen du zenbakiak. Kerexetak berretsi du «erabat asumituta» dagoela urte biribilak direnero horiek kontatzearena egun. Ildo horretan, galdetu du ea duela 100 urte urteurren bera nola ospatu zuten, ospatu baldin bazuten.

Alarde Parekideak urtero argitaratzen duen aldizkarian hausnarketa egin du 500 urte horiek aintzat izatearen gainean, eta gaur egun zifra horrekin zerbait aldarrikatu nahi izatea hautu ideologiko-

tzat jo du elkarteak, Kerexetaren hitzetan. «Zifra hor dago, data hor dago, eta gertaera ere hortxe dago. Baina gaur egun zer egin nahi dugu horrekin? Hautu ideologiko bat da hori. Argi dago batzuentzat borroka dela muina eta horren bueltan egiten dute dena, eta Alarde Parekidearentzat hori aitzakia besterik ez da».

Bataila gertatu zenean, garaiko irundarrek gerra irabazteko San Martzial delako santuak babestu egin zituela pentsatzen zutela sinets daitekeela dio historialariak. Baina gaur egun, hori «Aita Santuak berak ere» ez duela sinesten uste du. Alegia, 'Gora San Martzial!' oihukatzen denean ez duela inork santua gogoan azaldu nahi izan du. «Sanferminak bezala da: ez dira gauza bera San Fermin pertsonai historikoa, eta sanferminak».

## 26. URTEURRENA

Iaz, 25 urte bete zituen alarde publikoak, eta nahiz eta bataila izan aurtengo hilaren 30eko izenburu nagusia, azken 25 urteak gogoratzeak interes historiko ez anakronikoa eta askoz inportanteagoa izango duela azaldu du Kerexetak. «Gurretzat argi dago garrantzitsuagoa dela azken 25 urteetan gertatutakoa. 20 urteak ospatu genituen, eta 25ak pandemia erdian izan ziren. 500 urteak ospatzen ditugu, baina ez borrokaldia ospatzeko, borroka gogoratzen jarraitzen dugulako baizik». Ospatzea eta oroitzapena egitea oso kontu desberdinak direla gaineratu du. «Ospatzea da zeinen kontent nagoen adieraztea hori gertatu delako, eta oroitzapena egitea da hori aitzakia moduan baliatzea». Bestalde, batailaren garaipena ez zirela hori izan eta hurrengo urtean gogoratzen hasi esan du: «Gertaera historiko baten garrantziaren pertzepzioa gerora dator».

Gainera, bi urteko geldialdia egon dela ere kontatu behar dela dio historialariak, gizartean gauzak aldatu egin direla uste baitu. Azken berrien arabera, udal gobernua osatzen duen Elkarrekin Podemos-IU koalizioak eskaera ofiziala egin du udalean berriz alardea antola dezan, eta zerbait aldatzen ari denaren seinale nabarmena da hori. Izan ere, orain arte isilik egon da alardearekin ze-

Ongi pasa Sanmartzialak  
**ALDAKETA** Psikogunea  
**PSIKOLOGIA ETA HEZKUNTZA**  
**HAURRAK-NERABEAK-HELDUAK-BIKOTEAK**  
**Olatz Elizondo Cuñado** - PSIKOPEDAGOGOA -  
**Maite Elizondo Cuñado** - PSIKOLOGOA -  
**Luis Mariano 4- 1.B - 20302 IRUN - 943 631 572 / 664 422 440**

**HILAK 28**

**20:00.** Kantineren aurkezpena.  
19:45ean Urdanibia plazatik abiatuko dira Junkal plazaxora konpainia guztiak. Parte hartzeko txapel gorria eraman behar da.

**HILAK 29**

**11:45.** San Pedro Eguna. Munizio eta banderaxoen ematea. Urdainibia plazan elkartuko da Zalditeria, eta auzo guztietara abiatuko da. Konpainia bakoitzaren elkarguneak eta ordutegiak, [alardepublico.org](http://alardepublico.org) webgunean.

**20:00.** Banda eta Danborrada konpainien entsegu bateratua herritik zehar.

**21:00.** Urdanibia plazan Banda eta Danborradaren entsegu geldirik.

**HILAK 30**

**05:45.** Alborada Erromes plazan.

**06:00.** Alardearen diana Junkal plaza-txoan.

**10:20.** Goizeko alardea.

**12:00.** Zinaren betetzea Aldabe mendian.

**17:30.** Arratsaldeko alardea.



Alarde Parekideko kideak San Juan plazan, generalaren esperoan. Imanol Saiz

rikusia duen guztiarekin udala. Horrez gain, Kerexetak oroitarazi du azken bi urtean lege batzuk atera direla, baina sentsazioa du pausuak eman diren arren «mugitzen ez den kontu bakarra alardearena» dela. Ziur da Jose Antonio Santano alkateak noizbait Alarde Parekidearen eta udal gobernuaren zati batek egindako eskakizunei erantzunen bat eman beharko diola, baina noiz gertatuko den ezingo dela inoiz jakin aitortu du. «Berlingo harresia, zeinek esango, ia-ia aste batetik bestera erori zen. Noiz gertatuko den gurean? Ez dakit, baina horretarako prest eta gertu egon behar gara, eta horretan gabiltza».

**EZ DAUDE INOREN ESPEROAN**

Aurrera egiteko, alkateak egingo duenaren esperoan ez direla zain izango argi dute berdintasuna bermatzen duen alardearen aldekoek. Hasieratik borrokatu moduan elkarbizitzaren alde egingo dutela aurtengoan ere esan du historialariak: «Elkarbizitzarako baldintza baldin

bada emakumeek ez beste edonork ezin dutela parte hartu, elkarbizitza hori tranpatia da, eta guk jarraituko dugu aldarrikatzen alarde bakarra, publikoa eta denena». Etorrizunera begira ere jarri da historialari irundarra, eta noizbait alardea benetan publikoa bilakatuko balitz, eta udalak berriz ere antolatzearen ardua hartuko balu, ezin dela inor baztertzen duena izan ziur da. Eta denentzako

izatearen alde desfilatzen jarraituko dute aurren, aurreko 25 ekainaren 30etan egin bezala.

Izan ere, berdintasuna du ardatz eta xede alarde parekideak, eta oraindik ez dela lortu dio Kerexetak. «Berdintasuna ez da lortu, bake soziala bai, eta emakumeen parte hartze handiagoa ere bai. Berdintasuna ez, hori beste gauza bat da». ✕



**ALARDEAN  
BERDIN**

IRUN 2022



Mora, Rojo eta Gele abeslariak. HITZA

## Etxeko uzta taularatuko dute aurtengo hasierako abeslariak

Kontzertuak aukeratzeko dinamika udalak aldatu duen urte honetan, eta hasierako abeslarien eskaintza inoiz baino etxekoia goa da: Mora eta Son De Rue, Ezinezkoa eta Malforta irundarren txanda izango da.

### ALAINE ARANBURU ETXEGOIEN

Aurtengo jaiak kontzertu egun bat gehiago izango dute, hilaren 18koa, hain zuzen ere. Aurreratu egin dira jaiak, eta ia hamabost eguneko sanmartzialak dira

2022koak. Hiru egunetan izango dira Urdanibia plazan kontzertuak: hilaren 18an La Mala Rodriguez eta Unai Muguruza etxeko DJa izango dira oholztan; hilaren 23an Burrenba Elektrotarangak giroa animatuko du, eta hilaren 25ean Macaco igoko da taulara. Baina aurretik

hasierako abeslarien txanda izango da. Teloneroena, musika hizkuntza erabiliz argiako esateko.

### ETXEKOAK, ETXEAN

Aurreko urteetan bozkatu egiten ziren kontzertu *nagusiak* zeintzuk izango ziren, baina aurtun dinamika hori aldatu, eta udalak zuzenean erabaki du zein talde *nagusi* izango diren festetan. Dena den, hasierako taldeak aukeratzeko aukera ez dute kendu, eta herritarren bozak jaso ondoren, Mora eta Son De Rue, Ezinezkoa eta Malforta taldeek joko dute, hurrenez hurren, ekainaren 18, 25 eta 28an. Bozketa horretan talde gisa parte hartu ahal izateko baldintzeko bat izan da taldekideen erdia gutxienez irundarrak izatea, eta Ezinezkoa taldearen kasuan izan ezik – erdia dira irundarrak – beste bi taldeak irundarrez osatuta daude osorik.

Borja Mora Lozanok *M.O.R.A* lehen diskoa aurkeztuko du bihar bere auzotzat duen Moskun, baina era berean, taldekide den Son De Ruek (SDR) ere jarriko ditu errimak. «Herriak eskatzen duelako aterako gara SDRko hiruak, batez ere, talde honen parte izateagatik nagoelako hemen». La Mala Rodriguezen aurretik kantatzea gustuko duela azaldu du, genero berdinekoak direlako eta hori ikusleak eta oholztara igoko diren guztiek eskertuko dutelako Izan ere, 2019an SDRk Ken Zazpik baino lehenago jo zuen, eta egoera hori «oso arraroa» izan zela du gogoan Morak.

Ezinezkoa taldeko kide da Igor Bidurre. Azaldu du taldekide gehientzat «bigarren taldea» izan dela Ezinezkoa, aurretik beste talde batzuen parte izan direlako. Urdanibian joko zutela abisatzeko udalak deitu zienean, berria «poz handiarekin» jaso zutela adierazi du Bidurrek, ez zutelako «itxaropen handirik», aurreko urteetan beste taldeekin aurkeztu baitira, emaitza ezkorrekin.

Giroa berotzen hasiko da gaur txosnen irekierarekin. Hasierako kontzertua egingo dutenentzat berezia izango da etxean jotzea bi urtez jaiak ez egin eta gero, baina are bereziago haien herriko jaietan jendetza haiei tentuz adi, neurririk bete behar gabe ikusteagatik. ✕

## AIZPEA AMAS AGIRRE

**Erraldoiak biltegiak dituzue. Ateratzeko gogoz izango dira, ezta?**

Bai. Beti esaten dugun moduan, nahiago izaten ditugu erraldoiak kalean pabiloian baino, eta gogoarekin gaude kalera ateratzeko.

**Zenbat denbora pasatu dute irten gabe?**

Irten gabe ez dira egon, momentu puntaletan atera ahal izan direlako: ospakizun berezietan, Inauterietan eta erregetan... Sanmartzialak izaten dira urteko momenturik gorena. Lehengo urtean ez zen sanmartzialik egin, duela bi urte Ficoiban egon ziren ikusgai... eta, beraz, hiru urte dira sanmartzialetan kalera irten ez direla.

**Aurten, kalera irtengo dira, eta oso urte berezian, gainera...**

Bai. Atsegiñak 100 urte betetzen ditu. Urteurrena delako, eta kalean egotea gustatzen zaigulako, udalari proposatu genion egunero ateratzeko aukera aztertzeke, eta baiezkoa eman zigun. Beraz, aurten lehen aldiz erraldoiak egunero egongo dira kaleetan.

**Inoiz baino presentean egongo direnez, nola antolatuko zarete?**

Printzipioz, konpartsan ibiltzen garen pertsonok beteko dugu egunerokoan behar dena. Pentsatu zortzi erraldoi direla. Egoera onena izaten da hiru pertsona izatea erraldoi bakoitzeko; beraz, 24 pertsona erraldoiak eramateko gehi musikariak: 30 pertsona beharko ditugu irtenaldi bakoitzean. Gogoratu behar da ere 23tik 29ra lanegunak ditugula, eta ordutegiak ondo antolatu behar izan ditugu udalarekin. Koordinazio lan asko egin da bermatzeko egunero egongo direla erraldoiak kalean.

**Sanmartzialak nola biziko dituzue barrutik?**

Normalean 23an, 28an eta 29an ateratzen gara, eta aurten egunero irtenda, urduritasunez eta ilusioz biziko ditugu festak. Espero dugu eguraldi ona egitea, euria egiten badu ezin ditugulako erraldoiak atera.

**Konpartsetan zabilzatenak grina berezia daukatzue erraldoiekiko, ezta?**

Bai. Haurrekin gertatzen den fenomeno antzeko bat izaten da. Haurren artean



Alaine Aranburu

## «Urduritasunez eta ilusioz biziko ditugu aurtengo sanmartzialak»

### ENEKO CALVO ATSEGIÑAKO KIDEA

Elkartearen ehungarren urteurrena dela eta, aurtengo jaietan egunero irtengo dira konpartsak erraldoiak kaleetara. Erronka izango da, baina gogotsu daude.

zaletasun handia dago erraldoiekiko. Orain, asko ibiltzen dira jolasten gomazko erraldoekin, adibidez. Helduekin ere gauza bera gertatzen da: bagaude erraldoia mugitzeko grina dugun jende asko, eta, gero, belaunaldi arteko jauzi bat ematen da, eta helduagoa zarenean nostalgia puntu batekin ikusten ditugu erraldoiak. Hiru momentu izaten dira: txikia zarenean, gazte-heldu momentu horretan erraldoiak mugitzeko prest zaudenean, eta, gero, helduagoa zarenean, zure haurrak eramaten dituzu erraldoiak ikustera edo erraldoiak bizitzera.

**Konpartsan edonork parte har dezake?**

Gure konpartsan parte hartu edo informazioa eskatu nahi bada sare sozialetan gaude; prest gaude mundu guztia hartzeko. Neskei ere irekitzen diegu deialdia. Askotan beldurrez izaten dira, baina esan behar da teknika ikasita, erraza egongo zaiela erraldoi bat eramatea. X



## GORA SAN MARTZIAL!

### LARRAÑAGA PROIEKTUAK



ERREFORMAK - SUKALDEAK - BAINUAK ETA ABAR...  
INMOBILIARIA ZERBITZUAK

[www.larranaga-proiektuak.com](http://www.larranaga-proiektuak.com)

Talaia industriagunea P-1, 8. lokala. OIARTZUN - Tel.: 943 558 104

**Denda berria Irunen!**  
Korrokoitz kalea, 23. MOSKU

 @larranaga\_proiektuak

 Larrana Proiektuak

# EGITARUA

HITZA



## JAIEN HASIERA

**Hilaren 23an, 20:45ean.** San Pedro eta San Martzial jaiak hasteko, San Joan bezperako suaren inguruan dantzatuko dira Kemen Dantza Taldeko kideak. Ondoren (21:30) jaietako agur ofiziala egingo dute udaletxetik, eta jarraian, alkateak sua piztuko du.



**EGITARAU  
OSOA  
HEMEN**

labur.eus/  
bidasoagenda

HITZA



## KUADRILLEN EGUNA

**Hilaren 25ean.** Betti Gottiri esker, kuadrillek egun osorako bilgunea izango dute: 09:30ean, gosaria eta goitibeheren lasterketa Urdanibian; 13:15ean, kalejira Ficobako herri bazkarira (14:30); eta 20:30ean, kuadrillen itzulera erdigunera.

HITZA



## ERRALDOIEN FESTA

**Hilaren 26an, 17:30ean.** Irungo erraldoien konpartsa guztiek elkarrekin, Donostiako erraldoiekin batera, kalejira handia egingo dute hiritik. San Juan plazatik abiatuko da segizioa, eta hiriari osteratxoa eman eta gero, han bukatuko da.

Gora  
Sanmartzialak!

**Goieko**  
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO  
SISTEMA ETA PRODUKTOAK

Ongi pasa  
eta txukun ibili!

Irunen eta Beran

943 63 45 36

aurkituko gaituzu

www.goieko.com

HITZA



## ADINEKOEN BAZKARIA

**Hilaren 27an, 14:00etan.** San Pedro eta San Martzial jaietan adineko irundarrek topagune nagusi bat dute: udalak haientzat antolatzen duen bazkaria. Hiriko erretiratuen elkarte guztietako kideek hartu ohi dute parte bertan, eta aurten ere, Ficoba erakustazokaren zati handi bat haiena izango da hilaren 27an. Hara joateko autobusaren aukera dute erretiratuek (12:30ean aterako da Fermin Calbeton kaleko geltokitik), eta bazkaldu ondoren, 17:00etan abiatuko dira Ficobatik hirigunera autobusak. Festa handia adinekoentzat.

HITZA



**Hilaren 29an, 10:45ean.** San Pedro egunean, udaletxetik kanpo izango dira hiriko hautetsiak. Ohikoa den moduan, Jun-kaleko elizara prozesioa egingo dute zinegotziek, eta mezaren ondoren, denek elkarrekin, *Aurreksua* dantzatuko dute.

HITZA



**Uztailaren 1ean.** Irungo jaiak bukatzeko, Baserritarren Eguna. 08:00etatik arratsera arte Urdanibia plazaren ingurua baserritar girokoa izango da, abereekin, bertsolariekin, herri kirolekin eta musikarekin. 18:00etan, pilota partidak Urantzun.



[www.elatzeta.eus](http://www.elatzeta.eus)

## Gora Sanmartzialak!

Araba kalea, 44 20305 Irun - Tel.: 943 93 77 59  
012102aa@hezkuntza.net

# GAZTEGUNEA

## AIZPEA AMAS AGIRRE

Pandemiak gaueko (nahiz eguneko) aisialdia geldiarazi ondoren, gazteak gogotsu dira jaiez gozatzeko. Aurten ere eurentzat propio prestatutako espazioa eta egitaraua izango dute Santiagoko pilotalekuan —Istillaga plazan—. Hain zuzen, hilaren 25, 26 eta 27an egongo da karpa jarrita, eta hiru egunez, hainbat jarduera eta kontzertu eskainiko dituzte.

Egun guztietan izango dira kontzertuak. Larunbatean (hilak 25), urban estilo doinuak jarriko ditu Dupla talde arabarrak. Igandean (hilak 26), berriz, Recycled J-ren txanda izango da, eta reggaetoi, R&B eta trapa ekarriko ditu madrildarrak Irunera. Azkenik, astelehenean, beste rap kantari bat entzuteko aukera izango da: Anier. Bartzelonako artistak *Alas de metal* lehen diskoa aurkeztuko du. Kontzertuen ondoren, egunero, diskofesta izango da: larunbatean, DJ Javi Laz; igandean, Oihan Vega (Gaz-



Santiagoko frontoian jarriko dute gazteentzako karpa. **HITZA**

## Gazteek beren espazio propioa izango dute jaietan

tea) eta astelehenean, berriz, DJ Txurru (Gaztea). Kontzertuak 20:30ean hasiko dira (lehen egunean izan ezik, 20:00etan), eta diskofesta 22:30ean.

### EGUNEKO JARDUERAK

Karpa egunero zabalduko dute, 11:00etan, Euskaraldiko Ihes Gelarekin.

Gainontzeko jarduerak 17:30ean hasiko dira: karaokea, freestyle erakustaldia eta urban talent eskainiko dituzte. Horrez gain, aurten, lehen aldiz, Gaztelekuko gazteek dinamizatutako bi ekintza egingo dituzte: ginkana eta Gaztetxef. Bi jarduerak 12 urtetik gorako gazteei zuzenduta daude. ✕

**GORA  
SAN  
MARTZIAL!**

**Festa garbi on bat opa dizuegu**

Birziklatu dezagun!

eléctrico 100% garbia

TXINGUDIKO ZERBITZUAK  
SERVICIOS DE TXINGUDI